



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

2024ko SAREEN SAREA SARIAREN OINARRIAK

1. Sarrera

Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren (TSSE, gaztelaniaz) Eguna antolatu zuen lehen aldiz 2017ko maiatzaren 12an (1205), Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 6/2016 Legea onartu zeneko lehen urteurrenaren harira.

TSSeren lehen Egun hartako programan errekonozimendurako espazio bat sortu nahi izan zuen Sareen Sareak Pedro Fernandezi aitortza egiteko. TSSeren arloan "sareetan" eginiko lanaren arkitekto eta gaur Sareen Sarea den horren aitzindari da Pedro Fernandez.

Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeak 2018an erabaki du, 1205ren harira, sektoreak jarraitu egingo duela, urtero, oinarri hauetan adierazitako irizpideak betetzen dituzten pertsona fisikoei edo aitortza publikoa egiten.

Sareen Sarearen Zuzendaritza Batzordeak eskubidea izango du "ad honorem" aitorten berezia egiteko, aparteko kasua izanez gero.

2. Aitortzaren izena

SAREEN SAREA saria. *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala*

3. Sariaren xedea

SAREEN SAREA sariaren xedea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareak biltzen dituen elkarteak eginiko ibilbideagatik eta hartutako konpromisoagatik nabarmendutako pertsona fisikoei aitortza publikoa egitea da; hemen aipatuko ditugun gai hauetatik bi edo gehiagotan egindako lanagatik, hain zuzen:

- gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzea lehenesten duena, pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituena, egoera zailean daudenei arreta berezia eskainiz.
- pertsonen parte hartzea, zuzenean edo zeharka, eta bereziki EHSSren ekintzen onuradunek, bizitza sozialean.
- Hirugarren Sektore Sozial elkartu, sendo eta aitortua egituratzea.
- TSSE erreferentziatzeko gizarte-eragile gisa proiektatzea.
- emakumearen ahalduntzea eta genero-berdintasunaren aldeko lana, oso feminizatuta dagoen Hirugarren Sektore Sozial batean.

Sareen Sarearen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren nortasunarekiko (misioa eta balioak) koherentea den ekarpen bat egiteko lorpenetan eta/edo konpromisoan nabarmendu diren pertsonen jasoko dute saria.



Sareen sareea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

4. Hautagaitzak

2024rako hautagaitzak oinarri hauen arabera proposatuko dira.

Hautagaitzak Sareen Sareko Komunikazio Batzordera igorriko dira, komunikazioa@sareensarea.eu helbidera, eta bertan adierazi beharko dira saria jasotzeko proposatutako hautagaiaren merezimenduak, honekin batera doakizuen ereduaren arabera (**amaieran erantsita**).

Hautagaitzak jasotzeko **EPEA 2024ko otsailaren 29an amaituko da, 14:00etan**.

5. Saria jasoko duen hautagaitzaren hautaketa

Komunikazio Batzordeak, aurretik jasotako hautagaitzak aztertu ondoren, arrazoitutako proposamen bat igorriko dio Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeari, hark onar dezan.

Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeari dagokio saritutako hautagaia hautatzea.

6. Saria eta sari-banaketa

Sareen Sareak bideo bat egingo du saritutako pertsonaren ibilbidearen deskribapenarekin eta saria emateko ekitaldian jarriko da.

Saritutako hautagaiak elkartasunaren logotipoaren eskultura bat jasoko du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguneko-1205 ekitaldian sari-banaketari eskainitako atalean. Sareen Sareko presidentek edo hark eskuordetutako pertsonak emango du saria.

Sarituaren datu pertsonaletara sartu edo haien irudi publikoa erabiltzen bada, datu pertsonalak babestea arautzen duten arauetan ezarritakoa beteko da. Sarituen izena eta irudi publikoa sari-banaketari buruz aritzeko eta hura hedatzeko bakarrik erabili ahal izango dira, bai Sareen Sareko barneko komunikabideetan, bai kanpokoetan, edozein dela ere haien euskarria edo formatua (inprimatua, analogikoa, digitala, Internet, sare sozialak, etab.).



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

SAREEN SARIA 2024

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

HAUTAGAIAREN IZENA:

MEREZIMENDUAK:

ATXIKITAKO DOKUMENTUAK: